

EGOILIAR BERRIEN HARRERA INTEGRALA

Egoiliar berrien harrera eta beste erkidego batzuetako egoiliarrak euskararen inguruan sentsibilizatzeko eta oinarrizko prestakuntza emateko zirkuitu integrala.

JUSTIFIKAZIOA:

Urtero 120 egoiliar berri inguru hasten dira prestatzen Ezkerralde Enkarterri Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuan (gehienak medikuak, baina baita biologoak, psikologo klinikoak, farmazialariak eta erizain espezialistak ere), eta gehien-gehienak **4 urte emango dute gurekin**. Horiei guztiei erakundeko hizkuntza-irizpideen berri eman behar zaie jardunean hasi orduko, baita gure hizkuntza-politikaren berri ere. Eta gainera, egoiliarren kopurua handitzen doa urtez urte, eta horixe izango da hemendik aurrerako joera.

Bestetik, profesional berrien artean asko eta asko euskaldunak izan arren, **%50 inguru EAetik kanpokoak dira**, beraz, euskaraz ezertxo ere ez dakite.

Haiengana hurbiltzeko orduan, kontuan hartu behar da egoiliarrak prestakuntza-aldian dauden profesionalak direla, eta, hortaz, lan-jarduerez gain, ikastaro, tailer eta bestelako irakaskuntza-jarduera asko badutela beren prestakuntza-ibilbidearen barruan eta aukeratutako espezialitatearen arabera. Ahaztu gabe, noski, nahitatez egin beharreko guardiak eta barnezein kanpo-errotazioak. Bestalde, egoiliar-aldia amaituta, hemen geldituko diren, jaioterrira itzuli edo beste ospitalera batera joango diren ere ez dute argi.

Horren guztiaren ondorioz, euskara ohiko bidetik ikasteko zailtasun handi-handiak izaten dituzte. Horrenbestez, kolektibo horri erantzun bateratua eman behar zitzaiola iritzi genion, eta haien beharrianak kontuan hartuta, Harrera integrala eskaintzeko zirkuitua abiarazi genuen 2017an, haien iradokizun eta balorazioei esker egokitzen joan dena.

PROZEDURA

Funtsean hiru urratsetan garatzen da:

- 1.- Euskara Zerbitzuaren Harrera egoiliar berri guztiei** (Langileen Sailarekin eta Prestakuntza Espezializatuko Unitatearekin batera). Horretarako, egoiliar-aldian hasi aurretik, 6-12 lagunen arteko talde txikietan biltzen gara haiekin. Guztira, 12 bat saio izaten dira.

2.- **Sentsibilizazio tailerra kanpoko egoiliarrentzat.** Hiru orduko ikastaroa da, haien Irakaskuntza programan hautazko ikastaro gisa akreditatuta (Gurutzetako U. Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak onartua), euskararekiko lehen harremana erraztea eta parte hartzaileen interesa piztea xedez. **2017tik 2024ra**, tailer horretan, guztira, **185** profesionalak parte hartu dute.

3.- **Euskalduntze-eskaintza egokitua** kanpoko egoiliarrentzat. Gurutzetako U. Ospitalean bertan eta era semi-presentzian eskaintzen da. Aurrez aurreko saioak eta tutoretzak arrasaldez izaten dira (lanorduz kanpo). **2024an**, guztira **79 profesional** ari dira ikasten, ospitalean martxan ditugun lau taldeetan (A1-A2-B1.1. eta B1.2.)

HELBURUAK:

1. EEG ESlaren **hizkuntza-irizpideen berri** zuzena eta argia **ematea** lanean hasi aurretik egoiliar guztiei.
2. Euskararen inguruko **informazio praktikoa ematea** (paziente zein profesional elebidunen identifikazioa, euskara-agirien baliokidetzak, prestakuntza/trebakuntza-eskaintza orokorra, e.a.) profesional guztiei, eta bereziki, elebidunei.
3. Kanpotik datozen profesionalentzako edo euskaraz ezer ez dakitenentzako **prestakuntza espezifikoa eskaintzea, egoiliar-aldiko 4. urtea amaitutakoan, B1 euskara maila egiaztatzeko.**